



Francisco Lópezek Entzumen-behatokiko interbentzio artistikoak inauguratuko ditu, Arantzazun, «Ghost Forest» instalazioarekin

«Ghost Forest» ekainaren 10ean aurkeztuko dute Arantzazuko erakustaretoan. Inaugurazioaz gain, artista bere obrari buruzko topaketa batean izango da. «Ghost Forest» Entzumen-behatokiaren bost interbentzioetako bat da; hizkuntzak eta soinuak eta hiriaren eta hiritarraren ehunak duten elkarguneari buruzko proiektu bat da.

«Ghost Forest» (baso mamua) planeta osoko basoetan gauzatutako jatorrizko ingurune-grabaketa multzo baten soinudun instalazio bat da. Entzumen-behatokiak proposatutako bost interbentzioetatik lehena da. Bost interbentzio horiek ekainaren 10etik urriaren 15era bitartean izango dira, Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren Pagadi kaiko programazioaren barnean. Programak bost interbentzio artistiko izango ditu, bakoitza espezifikoki dagokion lekuarekin harremanetan. Francisco López musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloko pertsonarik garrantzitsuenen artean kokatzen dute nazioartean. Hogeita hamabost urte baino gehiago darama soinu-sorkuntzaren eta ingurune-grabaketen bidezko lanaren alorrean, eta denbora horretan soinu-unibertso erabat pertsonala eta ikonoklasta garatu du, mundua sakonki entzutea oinarritzat hartuta. Energia sonikoa sakabanatzen duten eta espazioaren beraren islapenak indartzen dituzten mini-bozgorailuen ezohiko sistema bat erabilita, eta hiru dimentsioko soinu-giroa sortzeko helburuarekin, atzemandako jatorrizko «errealitateak» kanpoko iragazketen bidezko aldaketa izan du.





Baso bat eraikin baten barruan

«Ghost Forest» arkitektura modernoaren adierazgarri diren hainbat arkitektura-enklabetan erakutsi dute, haien artean, Mies Van der Rohek 1929ko Bartzelonako Nazioarteko Erakustazokarako eraiki zuen Alemaniar Pabiloia, edo Amsterdango Amstelparkeko Glazen Huis Pabiloia. «Ghost Forest»-en seigarren bertsio hau Arantzazu Gaur Fundazioaren erakustaretoan aurkeztuko dute, 2016ko ekainaren 10etik uztailaren 10era. Inaugurazio-egunerako eserleku mugatuko autobus bat erraztuko da. Donostiatik aterako da 17:00etan, 5€ balioko ditu, eta alde aurretik erreserbatu beharko da helbide honetan: gu@entzuten.net. Bidaia bera programaren parte izatea pentsatuta dago, eta bertan entzunaldi batzuk izango dira. Instalazioaz gain, Francisco López eta Xabier Erkiziaren arteko topaketa bat egongo da. «Paisaiarik gabe» foroaren parte izango da, eta artistaren alderik garrantzitsuenetakoak aztertuko dira.

Entzumen-behatokiak Lópezen obra eremu berezi batean aurkeztu nahi izan du. Enklabe geografikoa, Aizkorri Aratz Parke Naturala, eremu berdingabea da «isiltasuna» edo «soinu naturala» gisako nozioak kulturalki ulertzen ditugun bezala barrentzeko.

Bestalde, «Ghost Forest» Arantzazu Gaur Fundazioaren Gandiaga Eraikineko erakustaretoan aurkeztuko dute. Eraikin hori eta Santutegiko arkitektura-gune monastikoa ere euskal egungo arkitekturaren eta eskulturaren enklabe adierazgarriak dira.

Entzumen-behatokia

Entzumen-behatokia komunikazioaren eta herritarren arteko harremani buruzko proiektu bat da. Bost interbentzio artistikok, talde-ikerketa batek eta eztabaidarako eta elkarrizketarako foro batek osatzen dute. Proiektuak hizkuntzaren ingurumariak ditu abiapuntu, pertzepzioa eta praktikatzen ditugun bat-etortzeak gure bizikidetzaz ezartzeko. Abiapuntu hori hartuta, helburua gure buruari zenbait galdera egitea da, esaterako, nola hautematen dugun ingurua, gizarteari dagokiona, herriari dagokiona belarriaren eta egungo sormen artistikoaren bidez. Ekainaren 11n inauguratuko da Francisco Lópezen interbentzioa, lehena, eta jarraian etorriko dira ALKUrena Aiete Parkean, Luz Brotorena Koldo Mitxelena Kulturunean edo Jaume Ferreterena. Azken horrek Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin elkarlanean egindako ikerketa-prozesu baten emaitzak aurkeztuko ditu Bulebarreko Kioskoan.

Aldi berean, aurtengo apiriletik aurrera, jardunean ari da «Paisaiarik gabe», proiektuaren hausnarketa eta eztabaidarako organoa. Ekainaren 17an, Xoán-Xilek «Soinu Artxibotik Gertakizunera» izeneko aurkezpena egingo du Tabakalera. Eszenifikatze-formatu honek, batzuetan paisaiaren adierazle ere baden honek izan dituen aldaketa eta garapen artistikoei buruz hitz egingo du. Autorearen hausnarketaren abiapuntua 2016ko urtarrilaren 20an gertatuko da. Egun hartan, Horacio González eta Xoán-Xilek berak ekintza berezi bat prestatu zuten: Escoitar.org weberra sartzan ziren erabiltzaileek, modu kolektiboan eta batzuetan inkontzientean, soinu-mapan grabatuta zeuden 1252 erregistroak ezabatzen zituzten.



Azkenik, ikerketa-proiektuak aurrera darrai. Apiriletik, Donostiako hemezortzi auzoetako biztanleak elkarrizketatzen ari dira, entzuteko eta elkarrekin bizitzeko moduak aztertzeari begira. Elkarrizketa horiek herritarren espazioari eta komunikazioari buruzko ikerketa baten oinarria dira. Emaitzak 2016ko urrian aurkeztuko dituzte.

Informazio praktikoa:

“Ghost Forest” - Francisco López
Ekainaren 10etik uztailaren 10era

Ordutegia:

Ostirala: 18:00 – 20:00

Larunbata : 11:00 – 14:00 + 17:00 – 20:00

Igandea: 11:00 – 14:00

Inaugurazioa:

Ostirala, ekainak 10, 20:00 - 21:00

«Paisaiarik gabe» foroa: 18:30 - 20:00

Inauguraziorako autobuserako aurrez izen-ematea: gu@entzuten.net

Joaneko bidaia:

Irteera: 17:00 (Donostia – Amarako autobus-geltoki zaharra)

Helduera: 18:15 (Arantzazu)

Itzulerako bidaia:

Irteera: 20:45 (Arantzazu)

Helduera: 22:00 (Donostia – Amarako autobus-geltoki zaharra)

Prezioa: 5 € (izen-ematea osteguneko 23:59etara arte)